



**Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 17ko EBAZPENA, zuzendari berarena 2021eko otsailaren 2ko Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen, bigarren aldiz aldatzen duena.**

---

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduaren (2020ko azaroaren 4ko EHAA) bidez estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean.

2021eko otsailaren 1ean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu zen Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak lanpostu hutsen behin betiko proposamena, lanpostu hutsen hasierako proposamenari egindako alegazioak aztertu eta plangintzako lurralde-batzordeei entzun ondoren.

Aurreko artikuluan aipatutako lanpostu hutsen proposamenaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 2ko Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen.

2021eko otsailaren 17an aldaketa batzuk gertatu dira lanpostu hutsen behin betiko proposamenaren

Lanpostu hutsen proposamenaren aldaketa dela-eta, aldaketa hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2010eko otsailaren 2ko Ebazpenaren, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dituen, eraman behar da.



Horregatik guztiarengatik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehen artikulua.-** Ondorengo terminoetan aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 2ko Ebazpenaren bidez argitara emandako behin-behineko lanpostu hutsen eranskina:

- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 18. orritik hau erretiratzea: Geografia eta Historia lanpostu bat eta Filosofia lanpostua Iruña Okako IES Badaia BHian.
- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 114. orritik hau erretiratzea: Hezkuntza-Orientabidea lanpostu bat, Curriculum Desberdinak Eratzekoa: Zientzia eta Teknologia lanpostu bat eta Curriculum Desberdinak Eratzekoa: Soziolinguistika lanpostua Basauriko IES Urbi BHian.
- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 146. orritik hau erretiratzea: Teknologia lanpostua Portugaleteko IES Ballonti BHian.
- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 165. orritik hau erretiratzea: Matematika lanpostu bat eta Fisika eta Kimika lanpostu bat Balmasedako IES Balmaseda BHian.

**Bigarren artikulua.-** Interesatuak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 17an

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**